

Arnagako adierazpenaren lehen urteurrena

**EH Bildu-ren eta EH Bai-ren
agiri bateratua**

ehbildu



Orain dela urte bat, 2018ko maiatzaren 4ean, Arnagako Adierazpena eman zen ezagutzera Lapurdiko Kanbo herrian. Bide luze baten une historikoa izan zena, zailtasunez eta oztopoz beterikoa: operazio polizialak, atxiloketak eta bake prozesuari zailtasunak jarritz. Izan ere, Europako azken gatazka armatua gainditzeko ahalegin horretan eragile guztiek ez baitzuten behar bezalako ekarpena egin eta jarrera eraikitzailea eduki.

Euskal Herriko gizarte zibilaren zein eragile politikoaren gehiengoak bake prozesuaren bidearen errailetan kokatu ziren eta horri esker burutu ahal izan dira azken urteetako mobilizazio handi eta indartsuenak. ETAk, bere aldetik, nazioarteko komunitateak aurkeztutako konpromisoei baikorki erantzun zien, ekinbide armatuaren behin betiko amaiera iragarritz lehen une batean; ondoren jendarte zibilaren parte hartze zuzenarekin, erabateko armagabetze ordenatua eta egiaztatgarria bururaino eramanez.

Arnagako Etxean, Kanbon, ETaren azken adierazpen historikoa jaso genuen. ETak, erakundea izateari amaiera eman ziola adierazteaz gain, eragindako kaltea eta samina onartu eta errespetuzko hitzak izan zituen biktimen guztientzat.

Arnagako adierazpenak ongi-asko jaso zuen une horren garrantzia: “Hau Europa osorako une esanguratsua da, kontinenteko azken indar armatuaren amaiera esan nahi baitu”. EH Baik eta EH Bilduk berriro nahi dugu adierazpen itxaropentsu harekin abiarazi zen denbora berriarekiko gure konpromisoa eta bakea zein bizikidetzat demokratikoa eraikitzeko gure erabateko ardura.

Tamalez, gai garrantzitsu batzuk oraindik konpondu gabe daude. Hala nola preso, ihesean edota deportazioan aurkitzen diren euskal herritarren auzia. Kolektibo horiek, presoek zein iheslariak, urrats ausartak egin dituzte konponketa errazteko amoz. Ontzat hartu eta are txalotu egiten dugu erakutsi duten irudimena eta ausardia.

Aitzitik, jokabide eraikitzaile horri Estatuak emandako erantzuna ohikoa izan da: Espainiar estatuari dagokionez, sakabanaketa eta urrunketa mantentzea, gaixo dauden presoek bere horretan mantentzea, gradu progresioa ukatze sistematiko eta bidegabea, salbuespenezko legediari eustea eta zigor bikoitzen aplikazioa. Urrats isolatu eta ez-nahiko batzuk baizik ez ditu egin.

Frantziar estatuari dagokionez, presoek hurbiltze aldera urratsak egiten zituela adierazi zuen eta egin ditu hainbat preso hurbilduz, baina ez da aski! Preso guztiak hurbilduak izan behar dira, eriak askatu behar dira, kondena bete dituztenak askatu behar dira. Hori litzateke, benetazko pausu adierazgarri bat.

Estatuek ez dute testuinguruak eskatzen duen aldaketa egin, ez diote heldu bakea eraikitzeko duten ardurari. Gotortu dira aitzineko jarreretan, errepresaliatuen senideei zigor eta sufrimendu gehigarriak eragiten segitzea barne.

Kasu batean zein bestean, bide luzea dugu oraindik aurretik, azken euskal preso eta iheslari politikoa etxera ekarri arte.

Iraganari begira, lehendabiziko zeregina genuen guztiok biktima guztien aitortza. Alta, egia, justizia eta erreparaziorako ariketan konpromisoa hartzea baino, batzuek nahiago izan dute kontakizunaren inguruko lehian murgiltzea. Horretan jarri dute indar guztia, horretara mugatu dute haien ahalegina. Beti ere kontakizun bakarra, kontakizun partzial eta baztertzalea inposatu nahian. Azken finean iraganari buruzko kontakizuna eta izandako sufrimendua etekin politikoak ateratzeko erabili nahi izan dute.

EH Baik EH Bilduk oso argi dugu gizarteak egia osoa ezagutzeko eskubidea duela, egia ezagutzeko beharra dagoela. Horrek bakera eraikitzen lagundu baizik ez du egiten. Euskal Herrikoa bezain anitzen den gizarte batean, sentsibilitate guztiak errespetatu behar dira, bakoitzak bere kontakizun propioa eskubidea duelarik. Hortaz, aritu gaituzen arduraz, errespetuz, eta guztion artean memoria eta kontakizun anitzen mosaikoa osatu dezagun.

Horrela, berriro ere gure begirunea azaldu nahi diegu biktima guztiei, jasan duten sufrimendua errespetu osoz aitortuz eta horrekiko gure gertutasuna adieraziz. Gure jardura politikoak bi zeregin garrantzitsu izango ditu: biktima guztien aitortza eta erreparazioa, eta etorkizunean inork berriro bortizkeria politikoagatik inolako samina eta kalterik sufritu ez dezan lan egitea. Aldi berean giza eskubide guztiekiko gure babes eta konpromiso osoa berresten dugu.

Arnagako adierazpena sinatu zuten nazioarteko pertsona ospetsuek zehaztu zuten moduan, “alde guztiek daukate oraindik lan handia egiteko. Berradiskidetzarako bidean barrena esfortzuek modu arrakastatsuan jarraituko dutela espero dugu”. Guk bat egiten dugu erronka horrekin, dagokiguna onartuz eta erantzun egokia emanez. Beraz, bizikidetzaren demokratikorako ahaleginak egiten jarraituko dugu. Halaber, proiektu politiko guztiak defendatu eta gauzatzeko aukera egon behar da, beti ere berdintasunaren printzipioan oinarrituz, askatasun osoz eta herritar gehienek oniritziz.

Hala ere, kezka ikusten dugu Estatuak termino hauetan erantzun positiboa emateko prestutasuna ote duten. Izan ere pasa den urtean sinatu zen Arnagako adierazpenak agerian utzi baitu Estatuaren jokabidea. Arestian esan bezala, alderdi eta eragile politiko batzuekin batera, denbora berriarekiko oztopoak jartzera mugatu direlako. Sinatzaileek orduko adierazpen hura “egun on gisa” hartzen

zuten Euskal Herriarentzat, Espainiarentzat, Frantziarentzat eta Europa osoarentzat, ospatzeko eguna. “Konponbide oso, justueta iraunkorra” lortzeko deia luzatu zuten, “munduko beste eremu batzuetan irudiz konpondu ezinako gatazkei aurre egiten dietenei ere itxaropena emango diela espero dugu” esanez. Guk itxaropen horri eutsiko diogu. EH Bilduk eta EH Baik urte honetan zehar denbora berriarekiko izan dugun atxikimendua berresten dugu eta gure ardura eta determinazio osoa adierazten dugu bide hori hauspotzen jarraitzeko.